

Material berrien eta elikagaien arloetan I+G+B jarduerak bultzatzeko akordioa sinatu dute CSIC eta Mondragon Unibertsitateak

2009/07/21

Ikerketa Zientifikoaren Goi Kontseiluko (CSIC, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren mendeko erakundea) lehendakari Rafael Rodrigok eta Mondragon Unibertsitateko errektore losu Zabalak esparru-akordioa sinatu dute gaur, asteartean. Akordioak bost urteko iraupena (luzagarria) izango du, eta material berrien eta elikagaien arloetako ikerkuntza, garapena eta berrikuntza sustatzea da bere helburua.

Hitzarmen horren bidez, beraz, Unibertsitateak bere ikertzeko zeregina sendotuko du, alde batetik, materialen arloan, material berriak garatzeko xedez. Kontuan izan behar dugu herrialdearen industria-garapenerako funtsezko arloa dela hori, eta hainbat sektoretan dela erabilgarria, adibidez automobilgintzan, etxetresna elektrikoetan, energian eta abarretan. Arlo horretan, hain zuzen, Mondragon Unibertsitateak lankidetzan jardun du Materialen Espainiar Elkartearekin uda honetan, Materialei buruzko Kongresu Nazionala antolatuz. Kongresu hori bi urtean behin egin ohi du Materialen Espainiar Elkarteak. CSICekin ere aritu zen elkarlanean Unibertsitatea ekitaldi horretan, materialen arloko azken ikerketei buruzko informazioa aztertu eta trukatzeko erreferentziatzeko gunea baita.

Beste aldetik, akordioaren bigarren arloa elikagaien inguruko ikerkuntza da. Horretan ere lanean ari da Unibertsitatea dagoeneko, Basque Culinary Center abian jarrita, hain zuzen. Hala, ekimen horren bidez, Gastronomía Zientzien Fakultatea sortuko da 2011n (Estatuko lehenengoa), baita gastronomia-zientzietan I+G+B jarduerak garatzeko zentroa ere. Aipatutako zentroaren xedea honako hau da: goi-sukaldaritzako profesionalen artean eta gastronomiarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten enpresa- eta ezagutza-sektoreetan ikerkuntza eta ezagutzaren transferentzia sustatzea, baita haien arteko sinergiak sortzea ere.

Lankidetzaren eremuak:

Zehazki, gaur sinatutako akordioak sei lankidetzaren eremu jasotzen ditu eta, geroago, hitzarmen zehatzak eragingo dituzte eremu horiek:

- Material berrien eta elikagaien zientzia-alarretan ikerlanak eta ikerkuntza- eta garapen-programak gauzatzea.
- Zientzia-jardueretan elkarri aholku, laguntza eta informazioa ematea, txostenak eginez, lantaldeak eratuz edo bestelako lankidetzaren bidez erabiliz.
- Ikerlariak eta teknikariak trebatzeko programetan elkarlanean aritzea.
- Ikerkuntzaren sustapen sozialari eta garapen teknologikoari lotutako jarduerak batera antolatzea.
- Pertsonala trukatzeko eta lankidetzan aritzea.
- Bientzat interesgarriak diren jarduerak gauzatzeko edo lankidetzan jarduteko I+G unitate mistoak sortzea.

CSIC, Erkidego Autonomo guztietan dago 130 ikerketa zentruen eta 145 elkarkidetzaren eskutik. CSICen ikerketa, 8 Zientzi-Teknika esparrutan kokatzen da: Humanitateak, Gizarte Zientziak, Biologia, Biomedikuntza, Baliabide Naturalak, Landa Zientziak, Zientzia eta Teknologia Fisikoak, Zientzia eta Teknologia Kimikoak, Materialen Zientzia eta Teknologia eta Jakien Zientzia eta Teknologia.

